

2009-07-16

GERNIKAKO BONBARDAKETA EUSKAL LITERATURAN: ERREPRESENTAZIO ETA BEGIRADA POETIKOAK

IRATXE RETOLAZA

EHU

Hitzaldi honetan euskal poesian Gernikako bonbardaketa jorratzerakoan harturiko bide anitzez egin nahi da gogoeta. Izan ere, Gernikako bonbardaketaren errepresentazio literario horietan guztietan ikuspuntu anitz mamitu dira gertaera lazgarri haren inguruko irakurketa edo irudikapena egiteko. Gertaera historiko hori hizkuntza poetikora bihurtzean, besteak beste, honako begirada hauek jorratu dira: begirada antropologikoak, begirada historikoak, begirada identitarioak, begirada sozialak, begirada literario edo poetikoak, begirada pertsonalak, eta abar.

Gainera, Gernikako bonbardaketaren inguruko errepresentazioak euskal arteetan ez ezik kanpoko arteetan ere egin izan dira. Pablo Picassoren *Guernica* margolan ezaguna horren adibide nagusia dugu. Horregatik, euskal poesian zehar eginiko ibilbide tematiko honetan, une oro euskal poesian jorratutako begirada horiek Euskal Herritik kanpoko arteetan sorturiko eta eraturiko begiradekin duten harremanaren inguruan gogoetabideak zabalduko dira.

Bibliografia

- Aiestaran, Ignazio (2003). *Monstruo abertzalea*, Elkar, Donostia.
Aresti, Gabriel (1986 [1974]). *Poesia argitaragabea. Azken poesia*, Susa, Donostia.
Atxaga, Bernardo (2007). *Markak. Gernika 1937*, Iruñea, Pamiela.
Borda, Itxaro (2007). *Noiztenka*, Baiona, Maiatz.
Iratzeder, Xabier (1945). *Pindar eta lanho*, Ezkila.
Izagirre, Koldo (1989). *Balizko erroten erresuma*, Susa, Iruñea.
Rozas, Ixiar (2001). *Patio bat bi itsasoen artean*, Arabako Foru Aldundia.
Serrano, Asier (2007). *Picassoren zaldia*, Donostia-San Sebastián, Elkar.
Monzon, Telesforo (1947). *Gudarien egiñak. Olerkietan*, Graf. Moderne.
Nabarro, Omar (1985). *Itsastxorien bindikapena*, Susa, Iruñea.